



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Arkotxa auzoa, 14 – 48480 ZARATAMO (Bizkaia)
Tel. 94 456 51 16 – Fax 94 457 10 35
e-posta: b06zaratamo@berritzeguneak.eus
web: www.b06berritzegunea.com

2017- 2018 IKASTURTEA

ANTOLATZEKO

**B06 BASAURI-GALDAKAO
BERRITZEGUNEKO**

URTEKO PLANA

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| AURKIBIDEA | 1 |
| I. SARRERA..... | 2 |
| II. HELBURU OROKORRAK, EKINTZAK, ARDURADUNAK, DENBORALIZAZIOA ETA EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK | 3 |
| 1- HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN PRESTAKUNTZA | 3 |
| 2- HEZKUNTZA INKLUSIBOA ETA ANIZTASUNARI ERANTZUNA..... | 8 |
| 3- ELEBITASUNA HEZKUNTZA ELEANIZTUNAREN BAITAN..... | 13 |
| 4- IKASMATERIALAK ETA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK..... | 18 |
| 5- EBALUAZIOA ETA IKERKETA | 23 |
| 6- IKASTETXE PUBLIKOEN AUTONOMIAN SAKONTZEA..... | 27 |
| III. HOBEKUNTZA PLANA..... | 30 |

I. SARRERA

2017-18 B06 Basauri-Galdakao Berritzeguneko Urteko Plan honen osatze prozesuan ondorengo irizpideak hartu ditugu aintzat:

- Heziberri 2020 Planaren 1. eta 2. proiektuak: [Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa \(2014\)](#) eta 236/2015 eta 237/2015 [Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum Dekretuak \(Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza eta Batxilergoa\)](#).
- 2016-17 ikasturteko memoria egitean jasotako proposamenak, bereziki jaso ditugun kanpo balorazioak eta barneko antolamenduaren gainean egindako iradokizunak.
- Eskualdeko ikastetxeen eskaerak eta prestakuntza premiak.
- Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaritzaren orientabideak eta jarraibideak.

Irizpide horiek II. ataleko helburu orokorretan txertatu dira eskualdeko eta urteko ezaugarriei erantzun egokiena eman ahal izateko. Honenbestez, lehentasunezko ildo bakoitzari dagozkion testuinguratze egokitzapenak definitu ditugu bertan.

Aurtengo ikasturteari begirako hobekuntza plana zehaztu da III. atalean, klaustro bileran adostu ondoren.

Antolamendu alderdiak definitu dira IV. atalean, hurrenez hurren ikastetxeen banaketa aholkularien artea, batzordeak eta lan-taldeak eta Berritzeguneari dagokion lan-egutegia.

Prestakuntza jardueren programa eta barne-prestakuntzari esleitu zaizkie V. eta VI. Atalak.

II. HELBURU OROKORRAK, EKINTZAK, ARDURADUNAK, DENBORALIZAZIOA ETA EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK

| 1- HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN PRESTAKUNTZA | | | |
|--|--|---|---|
| Helburu orokorrak | Ekintzak | Arduradunak eta denbora-epea | Ebaluazio-adierazleak eta neurtzeko erak |
| 1.1- Oinarrizko Hezkuntzako Dekretuan ezarritako ikasleen irteera-profila lortze aldera, irakasleen konpetentzia-profila | 1.1.1- Prestakuntza jardueretan zeharreko konpetentzien eta diziplina baitakoen garapena kontuan izan (<i>Prestakuntza ekimen orokorra</i>). | Aholkulari guztiok Ikasturtean zehar | (1): BAI - EZ (2): GUZTIETAN, GEHIENETAN, BATZUETAN, GUTXITAN, INOIZ EZ (3): EHUNEKOA (4): KOPURUA (5): OSO ONGI, ONGI, NAHIKO, GUTXI |
| | | | - Ea 2017-2018an emandako prestakuntza saioetan konpetentzien garapena txertatu den. (Ikus <i>Beharizanen diagnostikoa</i>) (2) |

| | | | |
|--|---|--|--|
| <p>eguneratzeko aholkularitza eta prestakuntza ematea. Hau da, kompetentzien araberako ikuspuntua eta planteamendu orokorrak eta diziplinen artekoak sustatzea, aholkularitza eta prestakuntza jarduerak diseinatzerakoan.</p> | <p>1.1.2- 2017-2018an emandako prestakuntza saioen balorazioan kompetentzien lanketa txertatu.</p> <p>1.1.3- Proiektuen bidezko tailerrak (DBHrako) eta <i>moduluen</i> prestakuntza eskaini.</p> <p>1.1.4- Hobekuntza planen jarraipenean kompetentzien garapena lehenetsi.</p> <p>1.1.5- ED 2017ko emaitzak aintzat hartuta, ikastetxeetan prestakuntza bideratzea Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaritzak proposatutako ildo eta moduluen arabera.</p> | | <p>- Ea 2017-2018an emandako prestakuntza saioen balorazioan kompetentzien lanketa txertatu dugun (1).</p> <p>- Ea <i>zelan garatu kompetentziak? unitate didaktiko berriak egiteko tailerrak eta moduluen</i> prestakuntza gauzatu diren eta proiektuen bidezko sekuentzia didaktikoak aztertu/burutu diren. (1)</p> <p>-Ea hobekuntza planen jarraipena egin den (1).</p> <p>- Ea ED17eko emaitzen laburpena landu dugun eta ikastetxeetan hobekuntzarako aztergai modura erabili den. (1)</p> |
|--|---|--|--|

| | | | |
|--|---|--|---|
| <p>1.2- Hezkuntza-berrikuntza bultzatzea eta ikastetxeetan esperientzia pedagogiko arrakastatsuen elkar-trukea eta ezarpena erraztea</p> | <p>1.2.1- B06 jardunaldietan praktika onak erakusteko gure eskualdeko ikastetxeekin kontatu.</p> <p>1.2.2- Jardunaldietan aurkezten diren esperientzien materialak eskualdeko ikastetxe eta irakasle guztien esku jarri, sites-ean.</p> <p>1.2.3- Material horiek, ikasturtean zehar guk geuk erabili gure aholkularitzan.</p> <p>1.2.4- “Bikaintasunerantz”deialdian ikastetxeek burutzen dituzten berrikuntza eta praktika arrakastatsuak gertutik jarraitu eta horietan lagundu.</p> <p>1.2.5-Eskualdeko ikastetxeen berrikuntza eta praktika arrakastatsuak elkarren artean</p> | <p>Aholkulari guztiok</p> <p>Ikasturtean zehar</p> | <p>- Ea 2017ko urriko Jardunaldietan aurkeztu diren ponentzietan, gure eskualdeko ikastetxeen parte-hartzea nabaria izan den (3) - %60</p> <p>- Ea jardunaldietan aurkezten diren esperientziak eskualdeko ikastetxe eta irakasle guztien esku jarri diren sites-ean. (1)</p> <p>- Ea material hori gure erreferentziako aholkularitzan erabili dugun (2)</p> <p>- Ea “Bikaintasunerantz” deialdiarekin loturiko ekintzen jarraipena egin dugun eta aurrera eramaten lagundu dugun (2)</p> <p>- Ea eskualdeko ikastetxeen berrikuntza eta praktika arrakastatsuak elkarren artean</p> |
|--|---|--|---|

| | | | |
|--|---|---|--|
| | <p>partekatzeko gune pribatu digitala sortu (unitate didaktikoetan).</p> <p>1.2.6-“Partekatuz Ikasi” modalitateari eskualde mailako agerpena eskaini.</p> <p>1.2.7-Berritzeguneko web gunean partekatuz ikasi modalitatearen gaineko berriak txertatu.</p> | | <p>partekatzeko gune pribatu digitala sortu den (1).</p> <p>-Ea mintegietan, ikastaroetan, jardunaldietan “Partekatuz Ikasi” modalitateari eskualde mailako agerpena eskaini zaion (1).</p> <p>-Ea Berritzeguneko web gunean “Partekatuz ikasi” gaineko berriak txertatu diren (1).</p> |
| <p>1.3- Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeei etengabeko prestakuntza eskaintzea, beste</p> <p>Berritzeguneekin eta Berritzegune Nagusiarekin prestakuntza jarduerak koordinatuz</p> | <p>1.3.1- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zuzendarien mintegiak egin.</p> <p>1.3.2- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasketa buruen mintegia egin.</p> <p>1.3.3- Berritzegune Nagusiak eskaintzen dituen prestakuntza ekintzak mintegiko lanarekin koordinatuta izan.</p> <p>1.3.4- Zuzendariei testuinguratutako</p> | <p>Zuzendaria eta HH, LH eta BHko aholkulariak</p> <p>Ikasturtean zehar</p> | <p>- Ea Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zuzendarien mintegiak egin diren (1)</p> <p>- Ea Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasketa buruen mintegiak egin diren (1)</p> <p>- Ea prestakuntza eskaintza BNarekin koordinatuta egin dugun (1)</p> <p>- Ea zuzendariei testuinguratutako lidergoaren gaineko laguntasuna eskaini den (1).</p> |

| | | | |
|---|---|---|--|
| | <p>lidergoaren gaineko laguntasuna eskaini.</p> <p>1.3.5-HLHI eta BHko zuzendarien mintegietan Berritzegune eta Ikuskaritzaren arteko elkarlana bideratu.</p> | | <p>-Ea bileren bitartez HLHI eta BHko zuzendarien mintegietan Berritzegune eta Ikuskaritzaren arteko elkarlana bideratu den (1).</p> |
| <p>1.4- Berdinen arteko prestakuntza indartzea, bai ikastetxeetan burutzen diren ekintzetan bai B06an antolatzen diren ikastaro eta mintegietan</p> | <p>1.4.1- Prestakuntza ekintzak planifikatzerakoan metodologia kontuan izan eta elkarreraginezko jarduerak antolatu.</p> <p>1.4.2- Aholkulari bakoitzak emandako prestakuntza jardueretan “berdinen arteko elkarreraginezko jarduerak” txertatu bere lanaren ebaluazioaren arabera.</p> | <p>Aholkulari guztiok.</p> <p>Ikasturtean zehar</p> | <p>-Ea prestakuntza ekintzak lantzerakoan, elkarreginezko jarduerak txertatu ditugun (2)</p> <p>- Ea 2017-2018an emandako prestakuntza jardueren baloraziorako adierazleetan “berdinen arteko elkarreraginezko jarduerak” atala txertatu den (3) %60</p> |
| <p>1.5- Familiek eta gainontzeko eragileak hausnarketa-</p> | <p>1.5.1- Hezkuntza eta Hizkuntza Proiektuak landuko dituzten ikastetxeei hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzea</p> | <p>Erreferentziazko aholkulari guztiak.</p> | <p>- Ea 2017-2018 ikasturtean egiten diren Hezkuntza Proiektuetan ikastetxeek, komunitatearen parte-hartzea bultzatu duen (2).</p> |

| | | | |
|--|--|--|---|
| <p>prozesuetan eta prestakuntza-jardueretan parte har dezaten bultzatzea. B06k sortutako parte-hartze foroari jarraipena ematea eta foroan parte-hartzera bultzatzea</p> | <p>sustatzeko aholkuak eta baliabideak eman.</p> <p>1.5.2-Eskualdeko diagnosia egin ondoren aholkularitzaren jokabidea zehaztu.</p> <p>1.5.2-Parte hartze foroa baliatu Berritzeguneak eskualdeari ematen dion zerbitzua kalitatezkoa izan dadin bermatzeko. (Batzordeak kalitatezko zerbitzua zer den definitu, planifikatu, esku-hartzeak bete).</p> | <p>Ikasturtean zehar (irailetik aurrera)</p> <p>Parte-hartze batzordea.</p> <p>Ikasturtean zehar</p> | <p>-Ea eskualdeko datu guztiak bilduta dauden (1).</p> <p>- Ea Berritzeguneko Parte-hartze batzordea berriz eratu den (1).</p> <p>-Ea hausnarketa prozesua bideratu den (1).</p> <p>- Ea eskualdeko herri ezberdinetako eragileek (guraso, udal teknikari, aisialdi talde,...) parte hartu duten (4).</p> |
| <p>2- HEZKUNTZA INKLUSIBOA ETA ANIZTASUNARI ERANTZUNA</p> | | | |
| <p>Helburu orokorrak</p> | <p>Ekintzak</p> | <p>Arduradunak eta denbora-epea</p> | <p>Ebaluazio-adierazleak eta neurtzeko erak</p> <p>(1): BAI - EZ</p> <p>(2): GUZTIETAN, GEHIENETAN, BATZUETAN, GUTXITAN, INOIZ EZ</p> <p>(3): EHUNEKOA</p> |

| | | | |
|--|--|--------------|---|
| | | | <p>(4): KOPURUA</p> <p>(5): OSO ONGI, ONGI, NAHIKO, GUTXI</p> |
| <p>2.1- Profesionalei aholkularitza eta prestakuntza ematea, hezkidetza, aniztasun afektibo-sexuala, eta hezkuntza-babes bereziak behar dituzten kolektiboentzako, arreta egokia sustatzeko eta hezkuntza inklusiboa garatzeko</p> <p>Helburua berrikustea.</p> <p>HPBko batzordearen edukia eta barne bilerak= tratatu?</p> | <p>2.1.1- Aholkulari- orientatzaile-, PT-, HLE-, hezkidetza arduradun, HH irakasleak, zuzendariak- eta ikasketa buruei prestakuntza ematen jarraitu, mintegi-, ikastaro- edota prestakuntza jarduera berariazkoen bitartez.</p> <p>2.1.2-Formakuntza espezifikoak kudeatzea(adimen gaitasun handiak, metodologi berriak, ikasketa arazoak arreta goiztiarraren ikuspegitik.... beharren arabera)</p> <p>2.1.3- Familien inplikazioa areagotzeko asmoz gure artean proposamenak aztertzea eta bultzatzea, ikastetxeetan aholkularitza emateko helburuarekin ikastetxeetan dauden prestakuntza ekintzetan haien parte-hartzea indartzeko.</p> | Aholkulariok | <p>- Ea aholkulari- orientatzaile-, PT- , hezkidetza arduradun- , HH irakasleak, zuzendariak eta ikasketa buruen mintegietan gai hauek landu diren eta ikastetxeetarako proposamen zehatzak gauzatu diren - gidoiak, orientabideak, protokoloak... (2)</p> <p>- Ea formakuntza espezifikoak gauzatu diren: HLE, PT, HH irakasleak.... (2)</p> <p>- Ea aniztasunarekin loturiko mintegietan eta erreferentziazko bileretan familien inplikazioa areagotzeko proposamenak landu diren. (2)</p> |

| | | | |
|---|--|--|--|
| | 2.1.4- B06 jardunaldietako esperientzietan aniztasunaren trataera islatu | | - Ea B06 Jardunaldietako esperientzietan aniztasunaren trataera islatu den (3): %60 |
| 2.2- B06 aholkularien arteko lankidetzaren bultzatzea eta eskualdeko ikastetxeetan aniztasunaren inguruko aholkularitza partekatua indartzea, HPBko eta etapako erreferentearen artekoa | 2.2.1- Bi erreferenteen arteko gutxienezko bi bilera egin (hasieran eta bukaeran) 2.2.2- Irakaskuntza partekatua indartzen jarraitzea, horretarako bi erreferenteen artean ildo bat aukeratu eta garatu. Bestela, Berritzegune lez erreferente guztiok <i>jolastokien erabilera inklusibitatearen irizpideei jarraituz</i> landu | Aholkulariok Aniztasuna Batzordea | - Ea bi erreferenteen artean gutxienez ikastetxeetan bi bilera burutu diren.(1) - Ea bi erreferenteek partekatzen dituzten eskoletatik batean gutxienez, ildo komun bat landu den. (1) |
| 2.3- Hezkuntza praktika inklusiboak sustatzea ikastetxe guztietan eta aniztasunarekin loturiko proiektuei dagokienez aholkularitza eta prestakuntza | 2.3.3- Aniztasunarekin loturiko estrategia metodologikoak landu mintegietan, ikastaroetan, eta berariazko prestakuntza saioetan. 2.3.4- Aniztasunari erantzun egokia emateko hezkuntza sailak publikatzen dituen dokumentu, protokoloa... berri ematea B06 aholkularien artean eta hauen zabalkundea egin mintegi, ikastetxe eta | Aholkulariok Aniztasuna Batzordea. | - Ea aniztasunarekin loturiko estrategia metodologiko ezberdinak landu diren mintegietan, ikastaroetan, eta berariazko prestakuntza saioetan (2) -Ea aniztasunari erantzun egokia emateko hezkuntza sailak publikatu dituen dokumentu, protokoloa... berri eman den B06 aholkularien artean eta hauen zabalkundea egin den mintegi, |

| | | | |
|--|--|--|--|
| <p>emateaz gain, proiektu horien jarraipen zehatza egitea</p> | <p>kolektibo desberdinetan.</p> <p>2.3.5- Aniztasunarekin loturiko proiektuak jarraitzeko eta baloratzeko Berritzegunean sortutako jarraipen tresna erabili. Jarraipen hau urtarrilean/otsailean egin.</p> <p>2.3.6- PREE irakasleekin eta Bidelagunaren arduradunekin eta monitoreekin bildu ikasturtearen erdian proiektua jarraitzeko.</p> <p>2.3.7- Programa Osagarrira bidaltzen diren eskaerak aztertzeko, erreferenteak, aniztasun batzordeak sortutako protokoloa erabili eta Orientatzaileen mintegiaren bitartez zabalkundea egin.</p> | <p>Aniztasuna Batzordea.</p> <p>Aholkulariok</p> <p>Aholkulariok</p> | <p>ikastetxe eta kolektibo desberdinetan. (2)</p> <p>- Ea aniztasunarekin loturiko jarraipen tresna erabili den eta jarraipenak urtarrila/otsailean egin diren.(1)</p> <p>- Ea PREE irakasleekin eta Bidelagunaren arduradunekin eta monitoreekin ikasturtearen erdian proiektua jarraitzeko bilera gauzatu den. (3)- %50</p> <p>- Ea Programa osagarrira bidaltzen diren eskaerak aztertzeko protokoloa erabili den eta zabalkundea egin den mintegi desberdinetan. (1)</p> |
| <p>2.4- Ikastetxeetako irakasleekin eta hezkuntza-eragileekin elkarlanean jardutea ikasgeletan, aniztasunarekin loturiko jardueretan – talde</p> | <p>2.4.1- Jarduera mota hauek burutzen diren ikastetxeetan parte hartu posible den heinean, horrela adosten bada.</p> | <p>Etapako Aholkulariok</p> | <p>- Ea talde elkarreragileetan parte hartu den, horrelako eskaera jasoz gero. (1)</p> <p>- Ea talde kooperatiboetan parte hartu den, horrelako eskaera jasoz gero (1)</p> <p>- Ea tertulia pedagogikoetan parte hartu den, horrelako eskaera jasoz gero (1)</p> |

| | | | |
|--|---|--|--|
| <p>elkarreragileetan, tertulia pedagogikoetan, talde kooperatiboetan- parte hartuz</p> | | | |
| <p>2.5-Haur hezkuntzako irakasleei Berariazko Hezkuntza laguntza behar duten ikasleen detekzioa egiten lagundu eta prozedurak irakasleekin, familiarekin, kanpoko erakundeekin zehaztu</p> | <p>2.5.1- Berariazko Hezkuntza laguntza behar duten ikasleei begira aholkularitza eman eta ikasle horien hezkuntza-prozesua jarraitu eta baloratu.</p> <p>2.5.2- Garapenaren ohiko zaintzaren protokoloaren inguruko formakuntza ematea aholkulari eta HHko irakasleei.</p> <p>2.5.3-Zuzendaritza eta ikasketa buruen mintegietan protokoloa bergogoratu.</p> <p>2.5.4-HH irakasleekin gai espezifikoak lantzea, prebentzioa lortzeko helburuarekin</p> | <p>HPBko aholkulariak eta HH-LH aholkularia.</p> <p>HPBko aholkulariak eta HH-LH aholkularia.</p> <p>Zuzendaritza mintegien arduradunak</p> <p>HPBko aholkulariak eta HH-LH aholkularia.</p> | <p>- Ea berariazko hezkuntza laguntza behar duten ikasleei begira aholkularitza eman den eta ikasle horien hezkuntza-prozesua jarraitu eta baloratu egin den. (1)</p> <p>- Ea Garapen ohiko zaintzaren protokoloaren prestakuntza saioak burutu diren (1)</p> <p>-Ea zuzendaritza mintegietan protokoloa birgogoratu den (1)</p> <p>-Ea HH irakasleekin gai espezifikoak landu diren, prebentzioa lortzeko helburuarekin (1)</p> |

| | | | |
|---|---|-------------------------------------|---|
| | <p>2.5.5 Irakasleekin ,familiekin eta kanpoko erakundeekin egin beharreko pausuak zehatu.</p> <p>2.5.6- Detekzio espezifikorako materiala , mintegi, ikastaro edo aholkularitzaren bitartez berraztertu eta lantzen jarraitzea.</p> <p>2.5.7 -Lehen detekzioa egin ondoren , 2. mailako detekzio espezifikoa egiteko materiala eta prozedurak lantzen jarraitzea.</p> | | <p>- Ea irakasleekin, familiekin eta kanpoko erakundeekin egin beharreko pausuak zehatu diren (2)</p> <p>- Ea detekzio espezifikorako materiala , mintegi, ikastaro edo aholkularitzaren bitartez berraztertu eta landu den (2)</p> <p>-Ea lehen detekzioa egin ondoren , 2. mailako detekzio espezifikoa egiteko materiala eta prozedurak landu diren. (2)</p> |
| 3- ELEBITASUNA HEZKUNTZA ELEANIZTUNAREN BAITAN | | | |
| Helburu orokorrak | Ekintzak | Arduradunak eta denbora-epea | Ebaluazio-adierazleak eta neurtzeko erak |
| | | | <p>(1): BAI - EZ</p> <p>(2): GUZTIETAN, GEHIENETAN, BATZUETAN, GUTXITAN, INOIZ EZ</p> <p>(3): EHUNEKOA</p> |

| | | | (4): KOPURUA (5): OSO ONGI, ONGI, NAHIKO, GUTXI |
|--|---|---|---|
| 3.1- Irakasleei aholkularitza eta prestakuntza eskaintzea, arlo eta gaietan hizkuntzarekiko konpetentzia era integral eta sistematikoan landu dezaten. | <p>3.1.1- Irakurketa tailerra antolatu eta eman, Berritzegunean, LH eta DBHrako, irakurketa hobetzeko estrategiak eta proposamenak lantzeko.</p> <p>3.1.2- Ikastetxeetan, hizkuntza arlo eta irakasgai guztietan, ikuspuntu komunikatibotik lantzeko prestakuntza zuzena eman, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak agindutako moduluen haritik:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Idazmena - Irakurmena - Ahozkotasuna - Hizkuntza Trataera Integratua | <p>Hizkuntza Batzordea.</p> <p>Ikasturtean zehar</p> <p>Hizkuntza Batzordea</p> <p>Ikasturtean zehar</p> | <p>- Ea irakurketa tailerreko hiru lan saioak egin diren (1)</p> <p>- Ea partaideek ondo baloratu duten (5)</p> <p>- Ea ikastetxeetan egon diren eskariak erantzun ditugun, prestakuntza moduluak garatuz (1)</p> <p>- Ea klaustrakideek ondo baloratu dituzten lan saioak (5)</p> |

| | | | |
|--|---|---|---|
| | <p>3.1.3- Irakasle guztiek euren programazioetan hizkuntza komunikazioa garatzeko helburuak eta jarduerak txertatzeko orientabideak prestatu eta eman</p> <p>3.1.4- Eskualdeko ikastetxeek hizkuntza gaietan duten egoera eta bilakaera jasotzen duen dokumentu irekia eta dinamikoa sortu eta osatu.</p> <p>3.1.5- Gure formazio eskaintza egokitzeko ikastetxeetan zer behar/lehentasun dituzten identifikatu Ebaluazio Diagnostikoko emaitzak , Hobekuntza Planak eta Hizkuntza proiektuak aztertuz.</p> | <p>Hizkuntza Batzordea</p> <p>Irailean</p> <p>Hizkuntza Batzordea</p> <p>Hizkuntza Batzordea</p> <p>Aholkulariok</p> <p>Ikasturtean zehar</p> | <p>- Ea arlo eta irakasgaietako programazioetan hizkuntza helburuak eta jarduerak txertatzeko orientabideak irakasleriaren esku jarri ditugun webgunean. (1)</p> <p>Ea dokumentua sortu eta ikasturtean zehar osatzen joan garen (1)</p> <p>- Ea ED emaitzak, Hobekuntza Planak eta Hizkuntza proiektuak aztertu diren eta behar/interesak identifikatu diren gure prestakuntza eskaintza egokitzeko. (1)</p> |
| <p>3.2- Eleaniztasunerantz Proiektua</p> | <p>3.2.1- Eleaniztasunerantz proiektuak garatzen dituzten ikastetxeei aholkularitza eman eta jarraipena egin, bereziki berriak</p> | <p>Hizkuntza Batzordea.</p> | <p>- Ea eleaniztasunerantz proiektuak garatzen dituzten ikastetxeei aholkularitza eman den eta</p> |

| | | | |
|--|---|---|---|
| <p>Hizkuntza edukien bitartez irakasteko estrategiak eta baliabideak eskaintzea.</p> | <p>diren ikastetxeei laguntza eskainiz.</p> <p>3.2.2- Ahalegin bereziak egin eleaniztasunerantz deialdian ikastetxe gehiagok parte hartzeko: ikasturte hasierako bileretan eta mintegi desberdinetan informazioa eman eta eskabideak egiteko laguntza opatu.</p> <p>3.2.3- “Ingelesa edukien bitartez” prestakuntza antolatu bereziki Eleaniztasunerantz Proiektuan sartuta dauden arlo desberdinetako irakasleei zuzenduta.</p> <p>3.2.4- Berritzegunetik kanpo (Hezkuntza Sailak) antolatuko diren prestakuntza saioetan parte hartzeko gonbidapena luzatu.</p> | <p>Aholkulariok</p> <p>Ikasturtean zehar</p> <p>Hizkuntza Batzordea.</p> <p>Aholkulariok</p> <p>Ikasturtean zehar</p> <p>Hizkuntza Batzordea.</p> <p>Ikasturtean zehar</p> <p>Hizkuntza Batzordea.kasturtea n zehar</p> | <p>jarraipena egin den. (1)</p> <p>- Ea deialdia argitaratu aurretik informazioa zabaldu den. (1)</p> <p>- Ea eskabideak tajuz osatzeko laguntza eta orientabideak eman diren. (1)</p> <p>-Ea “Ingelesa edukien bitartez” prestakuntza eskaini den. (1)</p> <p>- Ea Berritzegunetik kanpo (Hezkuntza Sailak) antolatuko diren prestakuntza saioetan parte hartzeko gonbidapena luzatu den.(1)</p> |
|--|---|---|---|

| | | | |
|--|---|---|--|
| <p>3.3- Aholkularitza eta prestakuntza ematea Ikastetxeek euren hizkuntza proiektua garatzeko.</p> | <p>3.3.1- “Hizkuntza Proiekturantz” mintegia ikastetxe guztiei eskaintzen jarraitu, deialdian egon ala ez.</p> <p>3.3.2- Hizkuntza proiektua egiteko prozesuan dauden ikastetxeei Ikastetxean bertan laguntza opatu, behar izanez gero.</p> <p>3.3.3- Batez ere mintegiaren bitartez, esperientzia eta baliabideen elkartrukea ahalbidetzea (IKTak erabiliz).</p> | <p>Hizkuntza Batzordea Ikasturtean zehar</p> <p>kastetxeen erreferentziazko aholkulariak Ikasturtean zehar</p> <p>Hizkuntza Batzordea Ikasturtean zehar</p> | <p>- Ea mintegia gauzatu den. (1)</p> <p>- Ea parte-hartzaileen balorazioa ona izan den (5)</p> <p>- Ea proiektua garatzeko edo biribiltzeko eskatu duten ikastetxeei laguntza eman zaien (3): %80</p> <p>- Ea mintegiko sitiesean dokumentazioa partekatzeko gune bat atondu den. (1)</p> <p>- Ea mintegi saioetan elkartrukeko espazioa finkatu den. (2)</p> |
| <p>3.4- Euskararen erabilera sozialerako aukerak eta esparruak areagotzea B06</p> | <p>3.4.1- Hizkuntza Normalkuntza Mintegiak (Gorbeialde, Hego Uribe eta Lanbide Heziketa) gauzatu.</p> | <p>HNTa Ikasturtean zehar</p> | <p>- Ea Hizkuntza Normalkuntza Mintegiak gauzatu diren. (1)</p> <p>- Ea parte-hartzaileen balorazioa ona izan den (5)</p> |

| | | | |
|---|---|---|---|
| <p>Berritzegunean eta Berritzegunetik kanpo, komunikazio esparru ezberdinetan</p> | <p>3.4.2- Lanbide Heziketako ikastetxeak Bizkaiko mintegian parte hartzera bultzatu.</p> <p>3.4.3- Ikastetxeetan aholkularitza zuzena eman 18-22 proiektuak egiteko.</p> <p>3.4.5- HNP mintegian saio batzuetan Hizkuntza Proiektuko edukiak landu.</p> | <p>HNTa</p> <p>Aholkulariok</p> <p>Ikasturtean zehar</p> <p>HNTa</p> <p>Hizkuntza Batzordea</p> <p>Aholkulariok</p> <p>Ikasturtean zehar</p> <p>HNTa</p> <p>Ikasturtean zehar</p> <p>HNTa Ikasturtean zehar</p> | <p>- Ea Bizkaiako LHko mintegian gure eskualdeko ikastetxeek parte hartu duten. (2)</p> <p>- Ea Alkarbide eta udaletako Euskara Zerbitzuekin elkarlana burutu den. (1)</p> <p>- Ea ikastetxeetan aholkularitza zuzena eman den proiektu bakoitzaren arabera. (2)</p> <p>- Ea HNP mintegian saio batzuetan Hizkuntza Proiektuko edukiak landu diren. (1)</p> |
|---|---|---|---|

4- IKASMATERIALAK ETA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

| Helburu orokorrak | Ekintzak | Arduradunak eta denbora-epea | Ebaluazio-adierazleak eta neurtzeko erak (1): BAI - EZ (2): GUZTIETAN, GEHIENETAN, BATZUETAN, GUTXITAN, INOIZ EZ (3): EHUNEKOA (4): KOPURUA (5): OSO ONGI, ONGI, NAHIKO, GUTXI |
|--|--|--|--|
| <p>4.1- Heziberri 2020 planean bildutako planteamendu didaktiko eta metodologikoarekin koherenteak diren ikasmaterialen sorkuntza eta erabilera bultzatzea, <i>Unitate Didaktikoak egitea eta Ebaluatzea Hezkuntza-Esparru Berrian</i> delako gida eta Berritzegune Nagusiak ekoiztutako gidak eta baliabideak abiapuntuzat hartuz</p> | <p>4.1.1- <i>“Unitate Didaktikoak egitea eta Ebaluatzea Hezkuntza-Esparru Berrian”</i> delako gida eta Berritzegune Nagusiak ekoiztutako gidak eta baliabideak abiapuntuzat hartuz ikastaro/tailerrak eskaini Berritzegunean.</p> <p>4.1.2- <i>Unitate Didaktikoak egitea eta Ebaluatzea Hezkuntza-Esparru Berrian</i> delako gida eta Berritzegune Nagusiak ekoiztutako gidak eta baliabideak abiapuntuzat hartuz ikastaro/tailerrak eskaini ikastetxeetan.</p> | <p>Aholkulari guztiok Ikasturtean zehar</p> | <p>- Ea <i>Unitate Didaktikoak egitea eta Ebaluatzea Hezkuntza-Esparru Berrian</i> delako gida eta Berritzegune Nagusiak ekoiztutako gidak eta baliabideak abiapuntuzat hartuz ikastaro/tailerrak eskaini diren Berritzegunean (1)</p> <p>- Ea <i>Unitate Didaktikoak egitea eta Ebaluatzea Hezkuntza-Esparru Berrian</i> delako gida eta Berritzegune Nagusiak ekoiztutako gidak eta baliabideak abiapuntuzat hartuz ikastaro / tailerrak eskaini diren eskatu duten ikastetxeetan. (1)</p> |

| | | | |
|--|---|--|---|
| | <p>4.1.3- Mintegietan dokumentu hauek ezagutarazi.</p> <p>4.1.4. Gure sites-an dokumentu hauek eskegi.</p> | | <p>- Ea mintegietan dokumentu hauek ezagutarazi diren. (3): 50%</p> <p>- Ea gure sites-an dokumentu hauek eskegi den (1)</p> |
| <p>4.2- Irakasleen konpetentzia digitala garatzeko prestakuntza eta aholkularitza ematea</p> | <p>4.2.1- Prestakuntza eskaintzan IKTen inguruko mintegi eta ikastaroak eskaini. (zehaztasunak mintegi eta ikastaroen eskaintzan ikusi)</p> <p>4.2.2- Irakasleen konpetentzia digitala deskribatzen duen dokumentua ezagutarazi eta nola landu daitekeen proposamenak egin.</p> | <p>Aholkulariak</p> <p>IKT Programa</p> <p>Ikasturtean zehar</p> | <p>- Ea prestakuntza ekintzak gauzatu diren (1)</p> <p>- Ea irakasleen konpetentzia digitala deskribatzen duen dokumentua ezagutarazi egin den. (1)</p> <p>- Ea nola landu daitekeen proposamenak egin diren. (1)</p> |

| | | | |
|--|--|---|--|
| | 4.2.3- B06 Jardunaldiak kompetentzia digitalean sakontzeko antolatu. | | - Ea Jardunaldiak kompetentzia digitalaren inguruan burutu diren (1) - Ea Jardunaldiak ondo baloratu diren. (5) |
| 4.3- Sare_Hezkuntza Gelan proiektua garatzen duten ikastetxeei aholkularitza eta prestakuntza eskaintzea, proiektuen jarraipena eginez | 4.3.1- Sare_Hezkuntza proiektuan parte-hartze duten ikastetxeei aholkularitza-prestakuntza eskaerei erantzuna eman. 4.3.2- Erreferentziazko aholkulariek bigarren hiruhilekoan proiektuaren jarraipena aspektu didaktiko-metodologikoetan egiteko bilera bat finkatu. | Aholkulariak IKT Programa Ikasturtean zehar | - Ea Sare_Hezkuntza proiektuan parte-hartze duten ikastetxeei aholkularitza-prestakuntza eskaerei erantzuna eman zaien. (1) - Ea erreferentziazko aholkulariek bigarren hiruhilekoan proiektuaren jarraipena egiteko bilerak burutu dituzten. (1) |
| 4.4- Berritzeguneko kideon artean IKTen erabilera bultzatzea eta arlo horretan eguneratzeko jarduerak egitea, elkarri lagunduz | 4.4.1- Aholkularien IKT formakuntzarako saio bi ezarri. 4.4.2- Webgunea eguneratu eta osatzen jarraitu. | IKT Batzordea Aholkulari guztiok | - Ea IKten inguruko barne prestakuntza egin den (1) - Ea Webgunea eguneratu egon den eta atalak osatu diren.(1) -Ea Berritzeguneko YouTube eta Twitter kontua sortu den (1) |

| | | | |
|---|---|--------------------|---|
| | <p>4.4.3- Berritzeguneko YouTube eta Twitter kontua sortu.</p> <p>4.4.4- Twitteren erabilera bultzatzeko barruko formakuntza eman berritzeguneko kideei</p> <p>4.4.5- Eguneratu Berritzeguneko APPa eta zabaldu</p> | Ikasturtean zehar | <p>-Ea Twitteren erabilera bultzatzeko barruko formakuntza berritzeguneko kideei eman zaien (1)</p> <p>-Ea Twitteren kontua eguneratzen den (2)</p> <p>-Ea Berritzeguneko APPa eguneratu eta zabaldu den. (1)</p> |
| 4.5- Berritzegunak eskaintzen dituen beste prestakuntza ekintzetan IKTak ere txertatzea, haien erabilera sustatuz | 4.5.1- Beste ikastaroetan/ mintegietan/ prestakuntza saioetan IKTen erabilera indartu. | Aholkulari guztiok | - Ea beste ikastaroetan / mintegietan/ prestakuntza saioetan IKTen erabilera indartu den. (3): %50 |
| 4.6- IKT heldutasuneko eredua | 4.6.1- IKT heldutasun ereduaren maila lortu | Sare_Hezkuntza | - Ea ikastetxeek egindako eskaerei erantzuna |

| | | | |
|--|---|---|---|
| <p>garatzen duten ikastetxeei aholkularitza eman eta ebaluaketa prestatzeko tresnak (ebidentziak) erraztea</p> | <p>nahi dutenei aholkularitza eman eta ebaluaketa prestatzeko tresnak (ebidentziak)erraztu.</p> <p>4.6.2- IKT heldutasun ereduaren mailaren bat ez duten ikastetxeei informazioa zuzena eman partaidetza bultzatzeko.</p> | <p>batzordea.</p> <p>Aholkulariak</p> <p>IKT Programa</p> | <p>eman zaien. (3): %80</p> <p>- Ea IKT heldutasun ereduaren maila lortu nahi dutenei aholkularitza eman zaien. (3): %80</p> <p>- Ea IKT heldutasun ereduaren mailaren bat ez duten ikastetxeei informazioa eman zaien (1)</p> |
| <p>5- EBALUAZIOA ETA IKERKETA</p> | | | |
| <p>Helburu orokorrak</p> | <p>Ekintzak</p> | <p>Arduradunak eta denbora-epea</p> | <p>Ebaluazio-adierazleak eta neurtzeko erak</p> <p>(1): BAI - EZ</p> <p>(2): GUZTIETAN, GEHIENETAN, BATZUETAN, GUTXITAN, INOIZ EZ</p> <p>(3): EHUNEKOA</p> <p>(4): KOPURUA</p> <p>(5): OSO ONGI, ONGI, NAHIKO, GUTXI</p> |

| | | | |
|--|--|--|---|
| <p>5.1- Ikastetxeetako hobekuntza-planetan parte hartzea, irakasleekin batera hezkuntza-jarduerari eta irakasle-lanari buruzko azterketa eta gogoeta eginez.</p> | <p>5.1.1- Eskualdeko ED 2017 ebaluazio diagnostikoaren datuak aztertu.</p> <p>5.1.2- Laguntza eman hobekuntza plana gauzatzeko</p> | <p>Aholkulariak.</p> <p>Ikasturtearen hasieran</p> | <p>- Ea Eskualdeko ED 2017 ebaluazio diagnostikoaren datuak aztertu diren (1)</p> <p>- Ea lehenengo bileretan hobekuntza planak gauzatzeko laguntza opatzen den. (3): %80</p> |
| <p>5.2- Autoebaluazioaren garrantziaz sentsibilizatzea berrikuntza bultzatzeko</p> | <p>5.2.1- .NIRE IRAKAS-PRAKTIKA AZTERTZEN (Bideo-grabazioaren bidez) prestakuntza jarduera opatu</p> | <p>Aholkulariak</p> | <p>- Ea NIRE IRAKAS-PRAKTIKA AZTERTZEN (Bideo-grabazioaren bidez) prestakuntza jarduera opatu den (1)</p> |
| <p>5.3- Ikastetxeetako irakasleei laguntzea kompetentziak aztertzen etengabeko ebaluazioa egin</p> | <p>5.3.1- Autonomiarako kompetentzia ebaluatzeko prozedurak eta baliabideak aztertu eta sortu.</p> | <p>Aholkulariak</p> <p>Matematika</p> | <p>- Ea autonomiarako ebaluazio-prozedurak aztertu diren (1)</p> <p>- Ea autonomiarako ebaluazio baliabideak sortu</p> |

| | | | |
|---|--|--------------------------------|---|
| dezaten | 5.3.2- Integrazio egoerak jakinarazi eta aztertu. | batzordea | diren. (1) - Ea integrazio egoerak jakinarazi eta aztertu diren (1) |
| 5.4- Berritzegune Nagusiak eta Ikuskaritzak ekoiztutako programazio didaktikorako gida egokitzen laguntzea | 5.4.1- Programazio didaktiko gidak ezagutarazi. 5.4.2- Ikastetxetako programazioak egokitzen lagundu. | Aholkulariak | - Ea programazio didaktiko gidak ezagutarazi diren. (1) - Ea programazioak egokitzen lagundu den (2) |
| 5.5- Ikuskaritzaren eta Berritzegunearen arteko koordinazioa eta informazio-trukea indartzea, baita zentroekiko lankidetzaren ere | 5.5.1- Koordinaziorako egutegia finkatu. 5.5.2- Informazio-trukearen bilerak egin. | Zuzendaria Aholkulariak | - Ea koordinaziorako egutegia finkatu den (1) - Ea informazio-trukearen bilerak egin diren (1) |

| | | | |
|--|--|---------------------|--|
| <p>5.6- ISEI-IVEIrekin lankidetzan aritzea, horrela eskatuz gero</p> | <p>5.6.1- Lankidetzarako egutegia finkatu.</p> <p>5.6.2- Adostutako lana epean bete.</p> | <p>Aholkulariak</p> | <p>- Ea lankidetzarako egutegia finkatu den (1)</p> <p>- Ea adostutako lana epean bete den (1)</p> |
| <p>5.7- Berritzeguneko jarduerak diseinatzerakoan, haien inpaktuaren eta eraginaren ebaluazioa aurreikustea, eragin hori era objektiboan neurtuko duten adierazlez baliatuta</p> | <p>5.7.1- Mintegietan ebaluazio galdetegia egin, partaideei bidali betetzeko, datuak jaso eta aztertu.</p> <p>5.7.2- Ikastaroetan ebaluazio galdetegia egin, partaideei bidali betetzeko, datuak jaso eta aztertu.</p> <p>5.7.3- Jardunaldietan ebaluazio galdetegia egin, partaideei bidali betetzeko, datuak jaso eta aztertu.</p> <p>5.7.4- Beste eginkizunetan ebaluazio</p> | <p>Aholkulariak</p> | <p>- Ea mintegietan ebaluazio galdetegia egin, partaideei bidali betetzeko, datuak jaso eta aztertu diren (2)</p> <p>- Ea ikastaroetan ebaluazio galdetegia egin, partaideei bidali betetzeko, datuak jaso eta aztertu diren. (2)</p> <p>- Ea Jardunaldietan ebaluazio galdetegia egin, partaideei bidali betetzeko, datuak jaso eta aztertu diren. (1)</p> <p>- Ea beste eginkizunetan ebaluazio galdetegia</p> |

| | | | |
|--|---|-------------------------------------|---|
| | <p>galdetegia egin, partaideei bidali betetzeko, datuak jaso eta aztertu.</p> <p>5.7.5- Erabiltzen diren formularioetan ikasitakoaren aplikazioa neurtzeko item bat sartu.</p> <p>5.7.6- Prestakuntza jardueretan aurreikusi aplikazio fase bat</p> | | <p>egin, partaideei bidali betetzeko, datuak jaso eta aztertu diren. (2)</p> <p>- Ea erabiltzen diren formularioetan ikasitakoaren aplikazioa neurtzeko item bat sartu den (1)</p> <p>- Ea prestakuntza jardueretan aplikazio fase bat aurreikusi egin den. (2)</p> |
| <p>5.8- Berritzeguneko kideon artean autoebaluazioa bultzatzea, adostutako irizpideak eta baliabideak erabiliz</p> | <p>5.8.1- Autoebaluazio-prozedura eta baliabideak erabaki eta sortu.</p> <p>5.8.2- Autoebaluaziorako egutegia finkatu.</p> | <p>Berritzeguneko kideon artean</p> | <p>- Ea autoebaluazio-prozedura eta baliabideak erabaki eta sortu diren.</p> <p>- Autoebaluaziorako egutegia finkatu den</p> |
| <p>6- IKASTETXE PUBLIKOEN AUTONOMIAN SAKONTZEA</p> | | | |

| Helburu orokorrak | Ekintzak | Arduradunak eta denbora-epea | Ebaluazio-adierazleak eta neurtzeko erak (1): BAI - EZ (2): GUZTIETAN, GEHIENETAN, BATZUETAN, GUTXITAN, INOIZ EZ (3): EHUNEKOA (4): KOPURUA (5): OSO ONGI, ONGI, NAHIKO, GUTXI |
|--|---|---|---|
| 6.1- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua egiteko edota berregiteko aholkularitza ematea | 6.1.1- Eskualdeko ikastetxeetako hezkuntza proiektuak direla eta, ikuspegi globala ematen duen txantiloia berregin, osatu eta aztertu. 6.1.2- Hezkuntza proiektua egin gabe edota egitearen prozesuan dauden ikastetxeei laguntza eman | Zuzendaritza Ikasturte hasieran Aholkulariok ikasturtean zehar | - Ea hezkuntza proiektuen inguruko txantiloia berregin, osatu eta aztertu den. (1) - Ea Hezkuntza Proiektua egiteko laguntza eman den. (2) - Ea eskualdeko ikastetxe gehienek haien hezkuntza proiektua osatu duten. (3): %60 |

| | | | |
|---|---|---|--|
| <p>6.2- Zuzendaritza-taldeen aitzindaritasuna bultzatzea eta prestakuntza ematea ikastetxeetako eta gizataldeetako kudeaketaz eta organizazioaz</p> | <p>6.2.1- Lidergo pedagogikoa sustatzen jarraitu.</p> | <p>Zuzendaria eta aholkulariok</p> <p>Ikasturtean zehar</p> | <p>- Ea estrategiak landu diren zuzendari mintegietan eta ikastetxeetan ere horrela eskatuz gero. (2)</p> <p>- Ea gizataldeetako kudeaketarako estrategiak landu diren zuzendari mintegietan eta ikastetxeetan ere, eskaerak baleude. (2).</p> |
|---|---|---|--|

III. HOBEKUNTZA PLANA

Hobekuntzarako hainbat aspektu garatuta daude 2. atalean. Jarraian azaltzen direnak talde osoa barne hartzen dutenak eta funtzionamenduarekin lotura zuzena dutenak baino ez dira

| Helburu orokorrak | Ekintzak | Arduradunak eta denbora-epea | Ebaluazio-adierazleak eta neurtzeko erak (1): BAI - EZ (2): GUZTIETAN, GEHIENETAN, BATZUETAN, GUTXITAN, INOIZ EZ (3): EHUNEKOA (4): KOPURUA (5): OSO ONGI, ONGI, NAHIKO, GUTXI |
|---|---|---|---|
| 1-Ikastetxeekiko interbentzioak hobetzeko asmoz, ebaluazio prozesuetan sakontzea. | <p>-Ikasturte hasierako bileretan, lan planarekin batera, ebaluazio adierazleak adostea.</p> <p>-Ikasturte amaieran Berritzeguneko balorazioaren gaineko hausnarketa lantzea. (Trujillori galdetu nola egin)</p> <p>-Ebaluazioaren emaitzan arabera hausnarketa egin da hurrengo ikasturteko plana definitzeko.</p> | <p>Aholkulariok Ikasturte hasieran</p> <p>Aholkulariok Ikasturte amaieran</p> | <p>- Ea ikasturte hasierako bileretan, lan planarekin batera, ebaluazio adierazleak adostu diren (1).</p> <p>- Ea ikasturte amaieran Berritzeguneko zerbitzuaren balorazioaren ganeko hausnarketa egin da (1).</p> <p>- Ea ebaluazioaren emaitzan arabera hausnarketa egin den eta hurrengo ikasturterako plana zehaztu</p> |

| | | | |
|---|--|--|---|
| | <p>-Ikastetxeekin (hezkuntza komunitate) batera gure lanak ikastetxean duen eragina neurtzeko adierazleak definitu.</p> <p>(Trujillori galdetu nola egin eta Foroaren batzordea)</p> | Ikasturtean zehar | <p>den (1).</p> <p>-Ea eraginaren gaineko adierazleak definitu dira (1).</p> |
| <p>2- Berritzeguneko kideon artean harreman positiboak (begirunea, konfiantza, laguntza etab.) oinarri dituen bizikidetza bultzatzen jarraitzea, batzorde-lana sustatuz eta ardurak guztion artean banatuz, koordinazioa indartuz</p> | <p>- Guztion partaidetza areagotzeko lan taldeko teknikak erabili.</p> <p>- Koordinazio bilerak aurretik planifikatu eta finkatu.</p> <p>- Interes komuneko gai bat aukeratu: proiektuen bidezko metodologia.</p> <p>- Ikasturtean zehar interes komuneko gaia sakontzeko lan saioak planifikatu.</p> <p>Berritzeguneko harremanak landu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gardentasuna | <p>Aholkulariok</p> <p>Ikasturtearen zehar</p> | <p>- Ea guztion partaidetza areagotzeko lan taldeko teknikak erabili diren (2)</p> <p>- Ea koordinazio bilerak aurretik planifikatu eta finkatu diren (2)</p> <p>- Ea interes komuneko gai bat aukeratu den (1)</p> <p>- Ea ikasturtean zehar sakontzeko lan saioak planifikatu diren (1)</p> <p>- Ea panelean norbanakoaren nondik norakoak zehaztu diren. (2)</p> <p>- Ea egutegitik kanpoko ordu estrak nola kudeatu eta</p> |

| | | | |
|---|--|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> • Eskerrak ematea • Parte-hartze demokratikoa <p>Berritzeguneko aholkularien artean egitura osoari dagokion ardurak adostasunez banandu</p> | | <p>irizpide bateratuekin hartzen diren. (1)</p> <p>- Ea eskerrak ematen diren. (3)</p> <p>- Ea Berritzeguneko, talde bezala, ardurak zehaztu ondoren adostasunez banandu diren (3)</p> |
| <p>3- Hezkuntza-Komunitateko eragile ezberdinekiko koordinazioa indartzea</p> | <p>- Parte hartze Foroan gurasoen partaidetza areagotzeko estrategia desberdinak erabili.</p> <p>- Udal eta Mankomunitateko teknikariekiko koordinazio bilerak lan esparru gehiagotara zabaldu.</p> <p>- Osakidetzarekiko koordinazioa gure zonaldeko beste gunera hedatu.</p> <p>- Bidelaguneko monitoreekin koordinazio bilerak finkatu.</p> | <p>Ikasturtean zehar</p> <p>Aholkulariok</p> | <p>- Ea Parte hartze Foroan gurasoen partaidetza areagotzeko estrategia desberdinak erabili diren (1)</p> <p>- Ea Udaleko teknikariekiko koordinazio bilerak lan esparru gehiagotara zabaldu den (1).</p> <p>- Ea Osakidetzarekiko koordinazioa gure zonaldeko beste gunera hedatu den (1)</p> <p>- Ea Bidelaguneko monitoreekin koordinazio bilerak finkatu diren (3): %60</p> <p>- Ea Parte-Hartze Foroaren xedea adostasunez eraiki den. (1)</p> |

| | | | |
|---|---|--|--|
| | <p>-Parte-Hartze Foroari jarraipena eman eta horretarako hezkuntza komunitateko kideekin xedeak definitu: osasuna, esparru akademiko-profesionala, prebentzioa, hezkidetzaz-elkarbizitza, hizkuntzak, IKTak, (Osakidetza, LH eta DBHen arteko koordinazioa, DBH-Lanbide Heziketa, ISEI-IVEI, udal-teknikariak, Gorbeialdea, Alkarbide, Begitu,...</p> | | |
| <p>4- Gure aholkularitzaren estiloa aztertzea eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea</p> | <p>-Norberaren aholkularitza-estiloaren gaineko hausnarketa egin (Trujilloren irizpideak).</p> <p>-Aholkulari guztien arteko gutxiengo ezaugarri batzuk adostu (Trujilloekin prestakuntza).</p> <p>-Guztiok ematen dugun Identitate digitala landu.</p> | <p>Ikasturtean zehar</p> <p>Aholkulariok</p> | <p>-Ea 2016-17ko urteko memorian norbanakoaren aholkulariaren estiloaren gaineko hausnarketa egin den. (3)</p> <p>- Ea irizpide bateratuetara heldu garen.(1)</p> <p>- Ea guztion identitate digitala izateko gutxiengo irizpideak finkatu ditugun.(1)</p> |
| | <p>5.1- 2. Faseari ekin: eremu pertsonala eta</p> | <p>Batzordea eta aholkulariok</p> | |

| | | | |
|--|--|--------------------------|--|
| <p>5. Berritzegunean prestakuntzarako erabiltzen diren espazioak era funtzionalagoan berrantolatzea.</p> | <p>orokorrak landu. 5.2- Aurrekontuaren araberako interbentzioak egin.</p> | <p>Ikasturtean zehar</p> | <p>- Ea plangintza egin den (1) - Ea interbentzioren bat egin den (2)</p> |
|--|--|--------------------------|--|

